

...eta kitto!

772 zkia. 2011-VII-15

ASTEKARIA

TOKIKOM



Ondo pasa oporretan!

EUKi

ARTEKARITZA

Toribio Etxebarria, 1 - behea
943 20 42 99

AUTOAREN ASEGURUA
preziorik onenean



ORTODONTZIA IKUSIEZINAREKIN...



irribarrerik
onena
lortuko duzu!

...eta atera
egiezu etekina
hortz-zuriketan di-
tugun
**PROMOZIO
BEREZIEL.**

**Zatoz eta
KONTSULTA egin!**

**Badirelako
gauza batzuk
galtzea komeni
ez direnak...**

**IRAZABAL
KLINIKAn
txikienen
aho-hortzetako
prebentzioaren
alde egiten
dugu apustu.**



Egizuz PADI-ren azterketak.



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxebarria 12 - 1. Esk.
20.600 EIBAR (Gipuzkoa)
Tel. 943 20 85 52

**ARGITARATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA:Urkizu, 11 - solairuartera
20600 Eibar**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:erredakzioa@etakitto.com
komunikabideak@etakitto.com
publizitatea@etakitto.com**Elkartearen E-MAILak:**elkartea@etakitto.com
normalizazioa@etakitto.com**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**

Itziar Albizu

Maidar Aranberri

Ekhi Belar

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Maialen Belaustegi, Ander Salegi,

E. Belar eta S. Hernandez

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76**AZALEKO ARGAZKIA:**

Ekhi Belar

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz

TIRADA:

8.000 ale

INPRIMATEGLIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" ez du bere gain hartzen al-
dizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskerara

HERIOTZA EGIN.- Hil. "Luzaruan gaixorik egon da eta azkenian heriotza egiñ jako". "Heriotza bat eginda ihes eban Ameriketara".**HERIOTZAK LOTU.**- Heriotzak ezustean harrapatu, bapatean hil. "Arkolo-arkolo, baso bete edaten eguala jausi zan heriotzak lotuta".**HERRI BATEKO.**- Herkide. "Herri batekuak diranetik, alkarri laguntzen detse". Elkarrekin buztartzeko modukoei ere esten zaie. Gaztelerazko 'tal para cual'. "Bai, esaten dan bezela, bixak herri batekuak". Erdalgaiztuan, 'esos, todos herribatekos'.**HERRIKO SEME.**- Herri batekoa izendatzeko. Batzutan ohore maila emateko ere erabiltzen da. "Toribio Etxebarria herriko semia zuan".

ESKUTITZAK

ESKERRIK ASKO

Azkenian lortu dogu Arrate Kultur elkartia berriz be martxan jartzia baiña hain edarto geldititu jakun lokalen irekiera eziñezkua izango zan jende askoren lana barik eta horretxegaittik lerro hauek hartu nahi ditutt jende guzti horri eskerrak emoteko.

Lehenik eta behin Aniaiz Ariznabarretarekin akordau nahi dot, momentuz berari zuzenian ezin detsat egindako lana eskertu eta bera izan zan proiektu honen hasieran lana gogorren egin zebana, oin gugandik urrin badake be badakigu gure lanen barri izan dabela eta gogoz jarraitu dittalua gure aurrera pausuak, horretxegaittik eskerrik asko Aniaiz.

Jarraitzeko, beste guztieri eskerrak aurrez aurre emon badetsuedaz be publikoki eskerrak emotia mezezi dozue beraz...eskerrik asko momentu ezberdi-

netan lagundu deskuezuen elkartekide guztiei, batez be tabernako arduradun be badiran Oscar Trebiño eta Aitor Elkorori. Eskerrik asko, hasieratik amaiera-raiño laguntzeko prest egon diran proiektuaren zuzendarixeri, Ibon Usobiaga eta Cecilia Otermineri eta euren gidaritzapian lanian jardun daken langile eta gremio guztieri: Goitu, Bengoa, Astarloa, Malvar, LanHotz etabar.

Amaitzeko eskerrik asko pazientziatz eta ilusiñoz obren amaiera itxain dozuen eibartar guztieri, batez be elkartiaren bilzaguneri, espero dot ikusi ditzuzuen emaitzak mereziko ebala eta orain egindako lana disfrutatzeke sasoia da beraz, On egin eta oporren bueltara arte!!!!

LEIRE ABANZABALEGI

ERREDAKZIOAREN OHARRA

Esku artean duzuen hau da udako opor aurretiko **AZKEN ALEA. HURRENGOA**, oporretatik bueltan eta Arrateko jaien aurretik, **IRAILAREN 6-AN** (martitzena) izango duzue zuen buzoietan. Bitartean, ondo pasa oporrak! Bueltan ikusi arte!

asteko

HEMEROTEKA


esaldiak

"Espainiako zientzia eta teknologiaren sistemaren barruan egotea arazoa da Euskadirentzat, Espainiako zientzia eremuan ez dagoelako lan merkatunik. Basque Center for Applied Mathematics-en ikasten dutenek ere, gero lana egitekotan, Estatu Batuetan, Frantzia... izan ditzakete aukerak, baina Euskadin edo Espainian zailagoa egingo zaie aurkitzea, hemen ez dagoelako irakasleen eta ikertzaileen zirkulaziorik apenas"

(Enrike Zuazua, BCAM-eko zuzendari zientifikoa)

"Guk euskaldunak garela ziur daukagun moduan, espainiarrek ere ziurtat dute gu espainiarrak garela, eta orduan ez dute ulertzen gure arazoa. Batzuek bai, baina ez dute ulertu nahi; baina gehienek... ezta ulertu ere! Nire lagun handienetako bat ere orain ari da ulertzen guretzat euskara zein garrantzitsua den; eta Donostiako Parte Zaharrekoa da bera! Hitzik ez du egin euskaraz inoiz, eta ez du premiarik izan"

(Miren Jone Azurza, kazetaria eta Zeruko Argiaren zuzendari-ohia)

EIBARKO
UDALAGIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIAEUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

autuan

ODOL-ETARATZIAK

Udan egonda be, Gipuzkoako Odol Emotailien alkartekuk ikasturteko martxiari eutsiko detse datozen astiotan be eta, beraz, hillaren 21ian 18.30xetatik aurrera alkartiaren lokalian horretan jardungo dabe (Pagaegi, 3 behean) eta toki eta ordu berian izango dira abuztuaren 18xan be.

JUBILATUENDAKO TXANGUA


Urtero egin ohi daberen moduan, aurten be Untzagako jubilauek abuztuaren 18rako txangua antolatu dabe, goizian hasi eta goizaldera arteko plana preparauta: 10.00etan Ego Gaiñeko autobus geltokitik urten, Zumaixan buelta bat emon, Orixon baxotxak nahi daberen moduan ibilli eta, jarraixan Agiñagako Errasti sagardotegira juango dira, han bazkaldu eta dantzan jarduteko asmuarekin. Etxera bueltatu aurretik, baiña, Donostian suzko erroberak ikusteko tartia be eukiko dabe. Txartelak 20 eurotan erosteko moduan dagoz.

Reugenio eta Alberto Cortéz irailerako

JAI PRODUCTIONS PRODUKTORAKUAK UDA OSTIAN, IKASTURTE BARRIXAREKIN BATERA ekingo detse denboraldi barrirako preparatzen diharduen ikuskizunak eskintziari, oiñ hillebete batzuk enpresia sortziarekin batera antolatutako Luis Eduardo Autereren kontzertuarekin zabaldu-tako bidia jarraipena emoten. Irailaren 17rako (20.00etan Coliseoan) antolatu daberen emanaldixa zuzeneko umorian oiñarritzen dan "Reugenio" izenburukua da, Lambretta Klubarekin batera prestatu dabe eta sarrerak alde zurretik erosteko moduan ipiñi dittue, 12 eurotan. Ikuskizunak oin da-

la 10 urte desagertutako Eugenio komikuaren unerik ezagunenak ekarriko detsez gogora ikuslieri.

Bestalde, eta atzera be kontzertu helduta, irailaren 30ian 21.30xetatik aurrera Alberto Cortez zuzenian entzuteko aukeria izango da Coliseo antzokixan. Argentinan oin dala 71 urte jaixotako artistak luzaruan ez dau hamen inguruan emanaldirik eskindu eta, hortaz, musikaria zuzenian entzuteko irrikitan duguazendako Eibarkua aukera paregabia izango da. Kontzerturako sarrerak alde zurretik ipiñi dittue salgai, 20 eurotan. Oingoiz sarrerak alde zurretik erosteko



aukeria www.jaiproductions.net helbidian baiño ez dabe emoten, baiña aurrerago herriko hainbat tokittan be erosteko moduan izango dirala aurreratu dabe enpresako arduradunak.

Merkealdixen azken txanpan



UDAKO MERKEALDI ETA DESKONTUAK HASI ZIRALA ASTIAK PASAU BADIRA BE, azken urtiotako martxiari jarraituta aurten be herriko dendarixetako askok euren produktuak kalera etarako dittue, merkealdixen azken txanpan oiñiño be preziak gehixago merketuta. Toribio Etxebarria kaliak 32 salmenta-postu hartuko dittu datorren astian, hillaren 20xan (eguztenian) hasi eta hillaren 21ian eta 22xan, udako merkealdi berezixa martxan egongo dan hiru egunetan amaitziar dagan sasoiko jantzi, oiñetako zein bestelakueri azken errematia emoteko.

Goza ezazu udako doinuarekin

Punta-puntako teknologia prezio ezin hobean!

%20 -raineko deskontua

GAESek operari, deskontuen eta abantailen konbinazio egokia eskaintzen dizu, udan zure entzumena zain eta hobe dezazun.

GAES Entzumen Zentroa

Bidebarrieta, 2 • Tel.: 943 20 61 14 • EIBAR

Asteburu betia Lambrettakuendako



AURREKO ASTEBURUAN PRIMERAN IBILLI ZIRAN LAMBRETTA KLUBAREN ESKUTIK antolatutako konzentraziñuan parte hartzera animau ziranak. Aurreikusitta eguan programiari jarraituta,

herrixan kalejirak, Eibar inguruetara urteerik eta beste hainbat kontuk bete eben programia. Egindakuen artian, erregular, motorzaliak ez eze bestela be edade guztietako herritarrak erakarri zittuan ekitaldixa Untzagan Lambretta eta Mobylette etxietako motorekin egindako erakustaldixa izan zen. Bestalde, Lambretta Klubak aurreko asteburuan antolatutako konzentraziñuaren testuinguruan, Arrateko Krabeliñ hotelian lagun birendako afarixa eta gaba pasatzia zozketatu zittuen eta antolatzailliak aditzera emon dabenez, sarixa 603 zenbakixarentzat izango da (erreserbakuak 301 eta 152 dira).



Garagardo jaiko zozketan sarittuta

EIBARKO RUGBILARIXAK SANJUANAK INGURUAN UNTZAGAN IPIÑITTAKO GARAGARDO KARPAN zeozer hartu ebenen artian biajia zozketatu eben, El Corte Inglesaren laguntasunari esker eta erretratuan ikusten dozen

Ivan Lezeak irabazi dau premiua: Parisera bidaia, 2012ko otsaillian 6 Nazifuetako Frantzia eta Ingalaterraren arteko norgehiagoka ikusi ahal izateko. Sarixa Ion Egiguren Eibar Rugby Taldeko presidentiaren eskutik jaso eban irabazliak.



anzorik anzo



Untzagako jubilau-etxia haunditzeko biharrak

Untzagako jubilau-etxia haunditzeko biharrak hasitta dagoz eta, horregaittik, obria amaittuta egon arte itxitta egongo da. Aurreikusittako epiak betez gero, iraillaren erdialdian barriztutako jubilau-etxia atiak zabaltzeko moduan izango da. Biharrereri esker jubilau-etxiak hartzen diituan jarduera guztiak modu egokixan garatu ahal izateko toki gehixago lortuko dabe, 160 metro karratuko azaleria gehittuko detselako aurretik eguazeneri. Izan be, Untzagako jubilau-etxiak herrixan daguazen jubilau-etxien artian bazkide gehixen dakana da, 1.400 inguru. Azken urtiotan egunero instalaziñuak erabiltzen dabenen kopuruak gora etenbarik egitten jardun dabenez, bertako arduradunak egoitza txiki geratu dala sarrittan errepikatu ostian, azkenian Txaltxa Zelaiko parkiñaren zati bat hartuta eraikiñarentzat metro gehixago lortzeko urtenbide egokixa izan leikiala pentsau eta Udalak 148.498 euro erabilli dittu metro horretxek erosi ahal izateko. Bigarren solairuaren azaleria haunditziarekin batera, pisu hori zein lehelengo pisua beste modu batian antolatu eta erabiltzeko aukeria eukiko dabe.

eibar kaleka

Ubitxa kalia

Ego erreKaren hegoaldian dagan Otaola edo Kiñarra auzuan desagerututako basarrixetako bateri zor detsa izena Elgetarako bidetik gora (Juan Gisasola kaletik), errebueltan topau geinkian kaliak.

Pegora kopurua: 23

Erroldatutakoak: 568



asteko

27

datua

terrazza ipintzeko lizentzia emon ditte Udalak, iaz emondako 23ak baiño gehiago. Batez be uda sasoiari baiño ez ditue ipintzen terrazak, baiña 5ek urte osuan martxan egoteko permisua dake eta batzaz beste 300-400 euro pagatzen ditue.




Txikilandiaren emonaldixa, autotxokiak eta kale-animaziñua. / MAIALEN BELAUSTEGI

Amañan jaixak dirau

AURREKO ASTEBURUA BETE-BETIA EGON ZAN AMAÑAN, AUZOKO JAIXAK ERAKARRITTA auzokuak zein auzotik kanpokuak bat egiñ eben eta. Barixaku arratsaldian hasi eta domekari agur esateko sasoi ailegau bittartian edozeiñek bere gustokua dan zeozer topatzeko aukerarik ez zan faltan izan, Jai Batzordekuak pre-parautako programako jarduerak orotarikuak izan ziran eta: rock kontzertuak, umiendako jo-

kuak, herri kirolak, suzko erroberak, herri-bazkarixa, danborradia... Edozelan be, oindiok be programako batzuk gaur egittekuak dira: urtero auzoko jubilaue gehixenak batzia lortzen daben bazkarixa gaur bertan egitteku a zan, Arrateko Kantabria jatetxian. Eta gaur gabian, 21.30xetan Caserio tabernan bertso-afarixa hasiko da, Mañukorta eta Zeberio bertsolarixen parte-hartziarekin.




Primerako jaixak San Kristobalen

BARIXAKU ARRATSALDIAN TXUPINAZUAREKIN HASI ETA DOMEKA BITTARTIAN, ATSEDEN HARTZEKO TARTE GITXI EUKI EBEN San Kristobal auzokuak, euren kalari izena emoten detsan babesliaren omenezko jaixak martxa betian ospatzen jardun ebenak behintzat. Ohiko jolas, txapelketa, bazkari, afari eta bestelako guztiekin batera, egitarauaren barruan antolatutako kontzertuak izan ohi dira urtero auzotik kanpokuak bertaraiño erakartzeko erabili ohi dan erreklamo nagusixena eta atzera be Medina Azahara eta Nuevas Amistades Peligrosas moduko izen ezagunekin kale egitterik ez eguan. Bestalde, jaixak domekan agurtzian San Kristobalگو Jai Batzordiak jaixetan saldutako rifen zozketia egin zan eta paradore batian asteburua pasatzeko aukeria emongo daben sarixa 236 zenbakixarentzat izango da (erre-serbakuak 213 eta 1.182 dira).




Medina Azahararen kontzertua, neska-mutikuak mahaixaren bueltan eta Gorixoren zezentxuak. / YANIRE SAGREDO



Udako beruakin hondartzetan jendez betetzen da ura. Jendiaz gaiñ, halanda be, azken urtiotan bisitari berezixa izan dogu gure kostaldian: Karabela Portugesa. Betiko marmokekin nahikua ez bazan, zitzada mingarrixagua dakan animalixa dabil gurian.

Marmokek baiñua eragozten detsue?



CARLOS PELÁEZ
15 urte
ikaslia

Uretan marmokak badagoz, kontu gehixagorekin hartzen dot baiñua. Begiratzen dot ia inguruan marmokarik dagan eta holan, ez pikatzeko. laz nere aurrian zegan bati marmoka batek pikau zetsan eta gorputza gorri-gorri ipiñi jakon.




ANDER ROMERO
17 urte
ikaslia

Hondartzara juateko ohitturia dakt eta ez desta iñoiz marmokarik pikau, baiña ikusi dot zelan lagun bati pikatzen zetsan. Marka haundixa egin zetsan egixa esan. Uretan marmokak daguzala esaten badeste, ni ez naiz baiñatzen.


FLORI MOYA
61 urte
etxeoandria

Hamen gitxittan juaten naiz hondartzara, oporretan noianian gehixago, baiña marmokak daguzala esaten badabe, zaindu egitten dot baiñua. Izan leike ez baiñatzia eta dana, bildurra emoten destelako. Ez deste iñoiz pikau, baiña txarra izan bihar da eta mingarrixa.



MARIAN HERNÁNDEZ
38 urte
administratibua

Neri iñoiz ez jata tokau baiñatzian marmokarik egotia, holan, ez dakt zer dan holako batek pikatzia. Egixa esan ez jata asko inporta marmokarik uretan egotia edo ez, ez dot kontu hori gehixegirik begiratzen.



Helbidea

URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreetako
1. solairua

EIBAR

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

☎ 943 12 02 00 FAX: 943 12 02 04

1 Kardiologia	8 Pediatria
2 Zirugia	9 Psikiatria
3 Dermatologia	10 Radiologia
4 Dietetika eta Nutrizioa	11 Traumatologia
5 Análisi Klinikoak	12 Koloproktologia
6 Ortodontzia	13 Erizaintza
7 Otorrinolaringologia	14 Zoru pelbikoaren errehabilitazioa

BERRIA: Foto-depilazio Unitatea

Eibarko BATZOKIA

EGUNEKO MENUA: Ego Gain, 1 - behea

14'5 euro (BEZ barne)

ASTEBURUKO MENU BEREZIA:

35 euro (BEZ barne)



Tfnoa. 943 25 72 80
www.baibatatzokia.com

RAZIOAK BARRAN

Entsaladak

Legatza frijitua 9 euro

Urdaiazpiko iberikoa . 8 euro

Sepia plantxan 6 euro

Olagarroa 6 euro

Filetea 9 euro

Arrate hotelaren eta Batzoki berriaren bitartean dagoen pasabidetik edo ingurutik pasatzea egokitu bazaizue, agian orain dela ez horrenbeste han ez zegoen plaka berri-berria ikusteko aukera izan duzue: "Labaderokua". Beharbada batek baino gehiagok kale berria dela pentsa dezake, baina egia esateko ez izena ez kalea bera, bietako edozeinek beritasunetik gutxi dauka. Errealitatea oso bestelakoa da, izan ere izenaren jatorria gure herriko historiari zuzen-zuzenean lotutakoa da eta.

LABANDEREN ofizioa gogoan

Berriki ipinitako kartelari begiratuta irakurri deza-kegun "Labaderokua" izenak gure herrian beste sasoi batean andrazkoen artean oso hedatuta egon zen labandera lanbideraino garamatza, irudimenaz baliatu eta denboran atzera egiteko ahalegina egiten badugu behintzat. Ego Ibarra batzordearen bitartez Udalak argitara eman duen Arantza La-

saren "Historia de las mujeres de Eibar" lanak jasotzen duen informazioaren arabera, XIX. mendeko Eibarren jantziak garbitzeko labaderoak eraikitzen joan ziren eta, gainera, bertan beharrean jarduten zuten emakumeen erosotasunarekin kezkatuta, jasotzen joan ziren labaderoetan estalkia ipintzen hasi ziren orduan. Garai hartan hartutako irudiak agerian lagatzen



Isasi kalea Ego-Gaiekin lotzen duen pasabidea aurretik ere esistitzen zen. / SILBIA HERNANDEZ

duen moduan, herriko hainbat tokitan labaderoak jasotzearekin ekin aurretik, labandera ziharduten andrazkoek errekan bertan garbitzen zituzten garbitu beharrekoak, Urkizun erreka estaltzearekin batera desagertu zen zubiaren inguruan.


Andrazkoei lotutako ofizioa jaiotzeko eta hedatzen joateko arrazoia bilatzen hasiz gero, ez dago buruari buelta larregi eragiteko premiari: industriak sasoi hartan bizitzen ziharduen gorakadarekin batera, bertarako behargin kopuruak ere etenbarik gora egiten ziharduen eta, jakina, tallarretan zikindutako arropak lehenbailehen garbitu eta berriz ere jatzeko moduan izateak berebiziko garrantzia zuen. Horrela, industriaren

babespain jaio zen horretan jardun zuten andrazkoendako benetan nekeza gertatzen zen beharra lehenengo, gerora ofizio bilakatuko zen zeregina.

Eibarren sasoi hartan martxa betean egon ziren labaderoak errekarren ibilbideari jarraituta, hainbat tokitan sakabanatuta egon ziren: Asua-Errekan, Bidebarrietan, Ardantzan, Ubixan, Matsarian, Aldatzen eta Arraindikalen egon zirenen gaineko testigantzak hainbat agiri zein iruditan jasota, gure sasoiraino ailegatu zaizkigu. Eta testuinguru horretatik aldendu berriz, "Labaderokua" izeneko pasabidea sasoi hartan hainbat pegoraren artean egon zen, Isasi kalea eta errekan eraikitako labaderoak, hain zuzen ere gaur egun Ego Gain izenarekin ezagutzen dugun kalean egon zen labaderoak lotzen. Pasabidean etenbarik ibili ziren garai hartako labanderak, garbitu beharreko arropak labaderoaraino eramaten lehenengo eta, ondoren, garbitutakoak berriz ere bueltan eramateko.



Ardantzako iturriko labanderak, XX. mendearen hasieran. / EIBAR REBISTA FONDOA. ROSARIO ARANBURUREN FONDOA.



JOSE ANTONIO AGIRRE ARRIOLA
(2011-VII-4)

**"Maite zaitugu hasieratik, orain eta betirako.
Agurrik ez, gero arte baizik.
Lagundu eiguzu, beti bezela.
Dana maitasuna zara"**

ZURE ALARGUNA, AMA, ANAI-ARREBAK ETA ILOBAK




Ondo pasa oporrak!!

Obrak egiteko sasoi betian

Honako hauek hurrengo hillabetietan egingo diran edo hasitta dagozen obra nagusixak herrixan:

- **Amañako Tiburtzio Anitua kaleko 22xan**, garajien gaiñian dagan plazia urbanizauko dabe eta frontoia estali; obra hori maiatzaren azken astian hasi zan eta sei hillabeteko epia dauka amaitzeko.
- **Untzagako Jubilatuen Etxeko** biharrak Sanjuanak pasata hasi ziran eta Arrateko jaixetarako amaittuta egon biharko leukie; batez be, bigarren solairua haunditu eta egokittuko dabe.
- **Armagin 1 eta 3 zenbakixen artian** dagan espaloia eta onduan duguaz eskillaretan egindako lanekin barritu egingo da ingurua; epia hiru hillabetekua da eta datorren astean hasiko dira. Adjudikaziñuaren prezixua 116.506 eurokua da.



– **Urkizun** hasitta dagoz **eurixetako ura** ondo jaso eta **bideratzeko** lanak; bi hillabete eta erdixan amaittu biharko dira eta adjudikaziñua 171.619 eurotan egin da.

– **Barrena 36ko aldaparen aldaketia** eta bertatik Iparragirreko bialeraiñoko eskillaren pabimentaziñua; hillabeteko epia dake lanok eta adjudikaziñua 64.723 eurotan egin da. Oin-diok obrak noiz hasi zalantzan dagoz.

Trenbidiaren lanak udan jarraituko dabe; irudixan, Asua-Erreka.
/ ANDER SALEGI



Kanpoko igerilekuak, freskatzeko onena

Ipuruako kanpoko igerilekuetako denboraldixa junixuaren 11n zabaldu zan eta setienbriaren 11n itxiko da. Bisitarixen kopurua, beti be, eguraldixaren araberekua da eta, iaz esaterako, 22.000ra heldu ez bazan, izan dira urtiak 33.000ko zifra gaindittuena. Iazko eguneroko batz bestekua ixa 600 lagunekua izan zan: junixuaren 29xan 1.635 bisitari izan ziran eta handik lau egunera bost bakarrik. Igerilekuen inguruan iaz egindako biharren ondoren, gaur egungo berdeguniak 2.400 metro karratu dittu.

Udako ordutegi berezixak

PEGORA

– Julixuaren 1etik setienbriaren 15era arte, goiztan bakarrik: 09.00-13.30
010 eta 943708400 telefono zenbakixetara deitze orduak: 08.00-14.00

PORTALEA

– Julixuan, astelehenetik barixakura: 09.00-21.00
julixuaren 25ian itxitta
– Abuztuan, astelehenetik barixakura: 09.00-14.00
abuztuaren 15etik 19ra itxitta

LIBURUTEGIA

– Julixuan, astelehenetik barixakura: 09.00-13.30 eta 16.30-19.30
– Abuztuan, astelehenetik barixakura: 09.00-13.30
abuztuaren 8tik 21era itxitta

ARMA MUSEOA

– Julixuan, martitzenetik barixakura: 16.00-20.00
– Abuztua, martitzenetik barixakura: 10.00-13.30

IPURUA KIROLDEGIA

– Abuztuan, 8tik 21era itxitta
1etik 31ra igerileku estalia itxitta.
Kanpoko igerilekua: 10.30-20.00

UNBE KIROLGUNEA


– Julixuaren 31tik abuztuaren 7ra itxitta
– Abuztuaren 8tik 21era: 10.00-20.00
22tik 31ra, betiko ordutegian

ORBEA KIROLDEGIA

– Abuztuan, astelehenetik barixakura: 09.00-13.00 eta 16.00-19.00
Zapatuetan: 08.00-15.00
Domeka eta jaiegunetan itxitta

ORBEA SPA

– Abuztuan, 1etik 21era itxitta
22tik aurrera, astelehenetik barixakura: 09.00-13.00 eta 16.00-19.00-
Zapatuetan: 09.00-14.00
Domeka eta jaiegunetan itxitta



Orbeako instalaziñuak.

Arraterako autobusa egunero

Ekaiñian ipiñi eben autobus zerbitzu barri hori martxan eta setienbrera arte iraungo dau. Urte guztian funtzionatzen daben zerbitzuari beste bat gehitu jako uda sasoiari: autobus



horrek **15.30xetan urtetzen dau egunero Eibartik** eta 16.00etan Arratetik jaisten da. Bestelako zerbitzuak bardin jarraitzen dabe: **zapatuetan**, 14.15etan; eta **jaiegunetan**, 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30xetan.

Kanpora doiazzenendako udaltzainguren aholkuak

Urtero legez, oporraldixa heltzen darian eta gure ohiko bizilekutik alde egitten dogunian, kontuan hartu biharreko aholku batzuk gogoratu nahi deskue Udaltzaingotik:

- **Uraren eta gasaren** giltza itxi
- Ez laga ez bitxirik ezta balixoko bestelako gauzarik
- **Kontakturako telefono zenbaki bat laga** famelixako edo konfiantzazko auzoren bati, baita buzoiko giltza be, **korrespondentzia jasotzeko**
- **Atiak eta bentanak** ondo itxitta daguazela begiratu; dana dala, ez da komeni persianak guztiz jaistia, horrek etxia hutsik daguala jakittera emoten dau-eta Aurten be, Udaltzainguak herritarrak gonbidatzen diitu oporretan egongo diran tokixetako **helbidia komunikatzer**a, holan etxietan edo komerziuetan gertau leiken edozein gorabehera dala-eta abisatzeko modua izateko.

Herrixan geratzen diraneri, bestalde, zeozer arrarua nabaritu ezker **092** zenbakira deitzeko eskatzen jakue.



MUTRIKUKO MADALENAK



ERMUKO SANTIXUAUK

Etxian geratuta be, aukera mordua jai-giruan gozatzeko

JULIXUAN: 18xan, **Santa Mariñe** (Andoain, Arakaldo, Aramaio eta Otxandixo); 22xan, **Madalenak** (Aiara, Arrigorriaga, Artziniega, Bermeo, Bernedo, Biana, DURANGO, Elantxobe, Laudio, MUTRIKU, Oñati, Orereta, Plentzia eta Trapaga); 25ian, **Santixauak** (Aiako Santio Erreka auzoa, Astigarraga, Barakaldo, Bilbo Zaharra, Billabona, Busturia, Derio, Donapaleu, Elizondo, ERMUA, ETXEBARRIA, Gares, Gasteiz, GOIMENDI, Gordexola, Gorniz, Ispaster, Pasai Donibane, SORALUZE, Tuter eta Zuia); 26xan, **Santanak** (Areta, ARRASATE, Berango, MENDARO eta Ordizia); 27tik 31ra (BAIONAKo bestak); 30ian, **Santa Luzia** (Zanbrana); eta 31n, **Saniñaziuak** (Algorta, Altzo, ANTZUOLA, AZPEITIA, Bilboko San Inazio, Derio, Donostiako Loiola, ELORRIXO, Etxebarri, Forua, GARAI, Gueñes, Laudio, LEKEITIXO, Lemoa, Lemoiz, Santutxu, Zalla eta Zubieta) eta **Santa Barbara** (Hernani).

ABUZTUAN: 1ian, **Kopraixak** (ITZIAR); 2xan, **Xantistebanak** (Aramaio, Bera, Derio, Oiartzun eta Trapaga); 4tik 9ra (GASTEIZko Andra Mari Zuriaren festak eta Getaria); 5ian, **Sallobentziak** (Aiara eta Astrabudua); 6xan, **San Salbadorrak** (Aia, EIBARKo auzua eta Fruiz), **Erlkien jaixak** (Bastida) eta **Gala eguna** (ZUMAIA); 8xan, **Santa Ana eta Santo Domingo** (Berango); 9xan, **San Roman** (Okondo); 10ian, **Sallobentziak** (Aiara, Berastegi, Gernika-Lumo, Gueñes, Ikaztegieta, Maruri, Zaratamo, Zigoitia eta Zuia); 10ian, **Sallobentziak** (ERMUA eta ELGOIBARKo auzuak, Oñati eta Zarautzeko Azken Portu); 11n, **Santiburtziuak** (Gernikako Lurgorri auzua, Leitza eta Sunbilla); 12xan (Algortako Portu Zaharra eta Euskal Jai-

xa ZUMAIAn); 14an (Zerain); 14tik 21era (DONOSTIAko Aste Nagusia); 15ian, **Andramaixak** (Agoitz, Agurain, Aiara, Amurrio, ARETXABALETA, Arrankundiaga, Azkaine, AZKOITIA, Baliarrain, Bardoze, Beranturi, Bidarte, Bilar, Burlata, EIBARKo auzua, ELGETA, Etxalar, Faltzes, Gernika-Lumo, Goizueta, Gorniz, Igorre, Iruña Oka, Larrabetzu, Laudio, Lemoiz, MALLABIA, Moreda Araba, ONDARRRU, SORALUZE, Zarautz, Zeanuri eta Zigoitia); 16xan, **Sanrokiak** (Amurrio, Asparrena, DEBA, ELGOIBARKo auzua, Gernika-Lumo, Iruña Oka, Langraiz, Laudio, Leza, MALLABIA, Mendexa, Meñaka, Oion, Oka, Pagoeta eta Portugalete); 18xan (Iekora); 20xan (Koadrila eguna ZUMAIAn); 21etik 28ra (BILBOKo Aste Nagusia); 22xan (Galdames); 23an, **Esker On jaixak** (Oion); 24an, **Sanbartolomiaz** (Alonsotegi, Amezketa, Areatza, Bernedo, ELGOIBAR, Gatika, Gordo, Ibarra, Lapuebla de Labarca, Laudio, Legutio, Mañueta, Oikia, Urizaharra eta Zegama); 26xan (Atxegaldeko jaixak Usubilen); 27xan (Trapaga eta Zeberio); 28xan, **Sanagustiñak** (Berrobi, Erandio, Hernani eta Legazpi) eta **San Juan lepomoztuko jaixak** (Bakio, Biasteri, Gordexola eta Zanbrana); 30ian, **San Kristobal** (Kanpezu); eta 31n, **San Emeterio** (Aiara eta Artziniega) eta **San Ramon Nonato** (MALLABIA).

IRAILLIAN: 1ian, **Sanantoliñak** (Artzentales, Galdames, Gautegez-Arteaga, Legutixo, LEKEITIXO, Orozko, Plentzia Santurtziko Mamariga, Zalla eta Zeberio), **Jubilatuen jaixa** (Lantziego), **Ferixa Nagusia** (Elorrio) eta **Euskal Jaixak** (Sopela); 3an, **San Gregorio** (Ataun); eta 5ian (Eltziego, Urduliz eta Euskal Astixa Ordizian).

Oporretako zinia kalia, Ego Ibar zine-klubaren eskutik




julixuaren 28xan

“The fighter”

2010ekua / 115 minuto

Zuzendarixa: David Russell

Aktoriak: Mark Wahlberg, Christian Bale, Amy Adams, Melissa Leo, Mickey O’Keefe
Sugar Ray Leonard-en aurka gogor borrokatzeagatik hiriko harrokoa den Dicky-k garai latzei aurre egin behar dienean hasten da istorioa.



abuztuaren 2xan

“Crazy Heart”

2009kua / 112 minuto

Zuzendarixa: Scott Cooper

Aktoriak: Jeff Bridges, Tom Bower, Maggie Gyllenhaal, Robert Duvall, Ryan Bingham
Blake country estilo musikako abeslari birrindu bat da, bere bizitzan zehar hainbat ezkontza-gatik, urte asko errepidean eta edariarengatik pasa egin da.



abuztuaren 4an

“Toy Story 3”

2010ekua / 103 minuto

Zuzendarixa: Lee Unkrich

Aktoriak: Tom Hanks, Tim Allen, Joan Cusack, Ned Beatty, Don Rickles
Andy unibertsitatera joateko geratu dago eta bere jostailu zintzok... haurtzaindegi batean amaitzen dute! Baina ume moko hauek nahiko arrisksuak dira.



abuztuaren 9xan

“The Trap”

2007kua / 106 minuto

Zuzendarixa: Srđan Golubovic

Aktoriak: Nebojsa Glogovac, Natsa Ninkovic, Anica Dobra, Miki Manojlovic
Milosevic-en osteko Belgradon, bizilagunak basamortu moral eta existentzian laga zituen iragan baten harira identitate berri bat bilatzeko borrokan dihardute.

IRAILAK 7 / KANTABRIA ^{JATETXEA} / 21:00
ARRATEKO BERTSO-AFARIA

ANTOLATZAILEAK:

...eta kitto!

Arrateko Jai Batzordea

BABESLEAK:

Eibarko Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jaurlaritza

Eroski Fundazioa




GAI JARTZAILEA
Asier Ibaibarriaga

LUJANBIO *Maialen*
ARZALLUS *Ametz*
LIZASO *Sebastian*
EGANA *Andoni*

SARRERAK

Aurre-salmenta bazkideentzat: uztailaren 18tik 27ra arte (27 euro)
...eta kitto!-n, 10.00etatik 13.00etara eta 16.00etatik 19.00etara
Uztailaren 28tik aurrera (28 euro): Sagarbitza / Kultu / Kantabria

TEEN-
AUEA



Jokatu berri den Euskal Herriko Udako Infantil Txapelketan urrezko hiru domina eskuratu ditu Ander Izagirrek (50 metro libre, 100 metro libre eta 400 metro libre), eta Espainiako Txapelketara gogotsu doa orain. 17 urteko igerilaria Valladoliden arituko da Abuztuan. Uretan onena izan nahi du bertan.

ANDER IZAGIRRE, IGERILARIA:

“Dominak lortzeko lan asko egin behar da”

- Euskal Herriko Udako Infantil Txapelketan hiru urrezko domina lortu berri dituzu. Nola sentitzen zara horren aurrean?

Asko poztu nintzen emaitza hori lortzean. Egia esan, itxaropen handia nuen zita horren aurrean emaitza onak lortzeko. Dena ondo irten zen eta niretzat oso pozgarria izan da.

- Beraz, konfiantza zeneukan domina horiek irabazteko?

Proba batean bai, uste nuen lor nezakeela; baina besteetan ezustea izan da, ez nuen espero hain ondo jardutea.

- Zein da zure proba gustokiena edo zure espezialitate igeriketan?

50 metro libreak. Hor bai espero nuela emaitza ona lortzea, baina 200 eta 400 metroetan irabaztea ezusteko handia izan zen niretzat.

- Abuztuan Espainiako Txapelketa jokatu duzu Valladoliden. Zein helbururekin zoaz hara?

Lehenik eta behin, finalean sartzea da nire nahia. Ondoren

ahalik eta ondoen egiten saiatuko naiz eta ahal dudan denbora onena lortzen. Podiumerako jauzia ur handietan sartzea da.

- Dominarik ateratzea espero duzu?

Aurrekoan atera nuen, baina badakit zaila izango dela oraingoan. Hala ere, lortuz gero asko poztuko naiz: iaz bezainbeste akaso.

- Bost probatan parte hartzeko gutxiengo denborak lortu dituzu.

Bai, baina lautan hartuko dut parte: 50, 100 eta 200 metroetako probetan libre modalitatean, eta 100 metrokoan tximeleta erakoan.

- Horren emaitza onak lortzeko, lan asko egin behar izan duzu?

Bai, nahiko gogor egin behar da lan. Astean sei egunetan entrenatzen gara eta bikoiztu egin ditugu orain lan saioak, egunero bi eginez. Igerian egiten dugu goizeetan eta arratsaldeetan, bestalde, gimnasio-ra joaten gara.

Izadi
LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Radio Eibar
CADENA
SER
104,0 FM

ITZULPEN
ERA GUZTIETAKO TESTUAK
ITZULTZEN DITUGU,
euskaratik gaztelarara,
gaztelaratik euskarara,
eta ingelesetik euskarara.

ZERBITZUA
elkartea@etakitto.com

Iritsi da uztaila eta horrekin batera musikarik onena gure herrira. Euskal Herriko Gazte Orkestrak (EGO) urteroko egonaldia egiten dihardu Eibarko Hezkuntza Esparruan hilaren 22ra arte Bilbo, Donostia eta Gasteizen egingo dituen kontzertuak prestatzeko.



Gustav Mahler gogoan musikari gazteek

Vienak 1911ko maiatzaren 18an esan zion agur Gustav Mahler musikagile austriarrari. 10 sinfonia idatzi zituen, nahiz eta azkena amaitu gabe utzi. Bere lanik ezagunak Lieder eines fahrenden Gesellen ("Bidaiariaren abestiak"), Kindertotenlieder ("Umeen heriotzeko abestiak") eta Das Lied von der Erde ("Lurraren

abestia") izan ziren eta sasoi hartako musikagile famatuenetarikoak izan zen. Orain, bere heriotzaren mendeurrena betetzen denean, EGOk Mahlerren 5. sinfonia prestatuko du udako kontzertuetan eskaintzeko, Luchino Visconti zinema-zuzendariak 'Heriotza Venezian' filmarean bidez jendartera zabaldu eta hilezkor bihurtu zuena

Laurogeita hamar gazte inguruk prestatuko dute Mahlerren maisulana Hezkuntza Esparruan, eta erronka handia bada ere, goi-mailako irakasleak izango dituzte Juan José Ocón donostiarraren zuzendaritzapean. Irakasleen artean aipatzekoa da Rodolfo Epelde eibartarra izango dela horietariko bat.

Hiru kontzertu

Orain dela bost urte, 2006an, EGOk Mahlerren sinfonia bat jo zuen, 'Titan', eta ardurdunen berbetan, "izugarria izan zen mota honetako talde batek horrelako proiektua aurrera ateratzea". Orain, hala ere, erronka handiagoa da, "EGOk bere 14 urteetan izan duen proiektu handi eta zailena da, zalantza gabe".

Hilaren 9tik daramatzate gazteek Mahlerren munduan murgilduta Hezkuntza Esparruan, eta euren helburua da Gasteizko Printzipal Antzerkian uztailearen 19an (20.00etan), Donostiako Kursaallean 20an (20.30etan) eta Bilboko Euskalduna Jauregian 21ean (20.00etan) ikuskizun ahaztenina eskaintzea. Musikak pizti gaiztoena ere otzantzen duelako.



Badira hainbat urte Euskal Herriko Gazte Orkestrak uztaila gure herriko Hezkuntza Esparruan pasatzen duela, hurrengo denboraldia prestatzen.

EGOITZA NAGUSIA
Bilberrista 20 - beheko, eskuma

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

- Tanatorioa eta Errozketa laboa
- Egoibonen (Sistema poligonoan)
- Partikular, natibo eta aseguru-etxei zerbitzuak
- Koroak - Ekialdeak - Urteurrenako ekitaldiak
- Euskal Herri osoko ospitaleetan bertzen zerbitzuak
- Nazio eta Nazioarteko irratigileak

Mugica Ehorzketa
Funtzekoak laboak

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

ARTOLA

jatetxea

ASTEBURUKO DEGUSTAZIO MENUA

Solomo carpaccio-a
Etxeko foie-a
Ganba, perretxiko eta espinaka nahaskia

Legatza laban edo
Bakailaoa Club Ranero erara

Solomilloa plantxan edo
Ahate confit-a

Degustazio postrea edo
Limoi sorbetea cavarekin edo
Txokolate mousse-a armagnac erara

Urteko ardoa, sagardoa edo beste

Astehenetik
barixakura
EGUNEKO
MENUA
15 €

Tokia gordetzeko:
943206348

25 € + BEZ

GREMIOEN GIDA

1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31 32 33 34 35 36 37 38 39 40 41 42 43 44 45 46 47 48 49 50 51 52 53 54 55 56 57 58 59 60 61 62 63 64 65 66 67 68 69 70 71 72 73 74 75 76 77 78 79 80 81 82 83 84 85 86 87 88 89 90 91 92 93 94 95 96 97 98 99 100

ANTENAK

BALATZ C.A.
SAT, TVC, Bideoa

Bidebarrieta 37

Tfnoa. 943 20 05 08
Faxa. 943 20 04 94

AROTZAK

ulmar
S.L.



aluminiozko eta PVC-ko aroztegia

Txonta, 30 - 1. eta behea

Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50

ERAKUSKETA

EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

ERREFORMAK

**ESTUDIOS
ARRILLAGA**

PROIEKTUAK-ERREFORMAK-BERRIKUNTZAK

ARRAGUETA 12 -Eibar-
Tel. 943 20 06 98

ROSARIO 15 -Elgoibar-
Tel. 943 74 40 19

Ego Gain z/g

Tfnoa. 943 12 73 50
Faxa. 943 20 73 60
www.trinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

GARBIKETAK

escudero

INDUSTRIA GARBIKETA

Otaola Etorbidea, 13

Tfnoa. 943 12 71 08 Faxa. 943 20 67 94
www.escudero.euskalnet.net

AROTZAK

IÑAKI

Egurrezko mota
guztietako lanak

Ateak - Tarimak
Altzariak

Milaflores 10

Tfnoa. 943 20 55 55

ELEKTRIZITATEA

ELECTRICIDAD
CUADRA EC

INSTALAZIO ENERJIA
TELEKOMUNIKAZIOA
INDUSTRIA BANTERUA
ARREGLATUAK
ERREFORMAK

CRISTALUX

limpieza

- Mantenimendu garbiketa
- Kristal garbiketa
- Garbiketa orokorra
- Garbiketa bereziak

cristaluxbe@gmail.com

Tfnoa. eta Faxa:
943 20 65 08

Mobila:

659 58 35 32

Ind. Ojanguren, 1 - behea (14 ac)

Aroztegia □ Ebanisteria
□ Obra aroztegia

C **N**

Egiturak, barruko eta kanpoko ateak,
armairu enpotatuak, tarimak, parketak, rodapiesak,
eskilarak, miradoreak, moldurak, oholak, janbak, leihoak

Otaola Etorbidea, 27

Tel. eta Faxa. 943 201 757

ATEZAIN AUTOMATIKOAK - ARGIZTAPENA -
MUSIKA - ETXEETARAKO ETA
INDUSTRIETARAKO INSTALAZIOAK

**ELECTRICIDAD
I T A B S L.**

INSTALAZIO ETA MUNTAIA
ELEKTRIKOAK

Urkizu, 32 behea Tel./Faxa. 943 12 73 75
Mobila. 647 90 66 20 / 607 71 38 73

GURIA

ELEKTRIZITATEA

* Muntaita eta
proiektu elektrikoak



Matsaria 2 - 7. pabilioa

Tel. 943 70 08 95 - Faxa. 943 82 00 27

www.electricidadgurria.com

**Limpieza
Multiservicio
Eibar**

Superfizie
mota guztietako
garbiketa eta
mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 254 615

Mobila 688 609 171

Barrena, 21 - 1. F

SUKALDE ALTZARIAK

*
AROTZEGIA
Iparragirre Anaiak

F. Calbetón, 4 behea Tel. 943 20 29 27
Tailerra: Apalategi auzoa Tel. 943 12 01 92
Mobila: 657 79 56 78

**TREJO
GARBIKETAK S.L.**

Tel: 943-752557
Faxa: 943-752556
16 Postakutxatila - Sorluze

Garbiketa eta
mantenimendua



- Barne apaintaketak
- Mantenimendu
eta automatismoak

MANTELEC, S.L.

Ubitxa 7-11

Tfnoa. 943 70 10 44
Faxa. 943 20 85 48

Informazio gehiagorako



943 20 67 76



IGELTSEROAK

IGELTSERITZA



CAMILO ALVAREZ OROKORREAN

– Barne erreformak
(sukaldeak, bainugelak, leihoak etb.)

– Gremioen koordinaketa

Jardiñeta, 25 - behea
Etxeko tfnoa. 943-207678
Mobila. 620 060 104



irazabal

ERAIKUNTZA ETA ERREFORMAK
IGELTSERITZA ETA
GREMIOEN KOORDINAKETA

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

ITURGINTZA



MUGICA
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...

HANSGRÖHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA

Egigurentarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

KRISTALAK



ACHA Kristaldegia

KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
ERREKATXU 3^{an}

eta faxa: 943 20 39 03

PINTURAK



Pintura orokorra
Margotutako paperak
Zoruen kolokazioa
PVC zoruak
Maketak
Alfonbrak
Kortinak
Etxerakoak
Osagarriak

Tfnoa. eta Faxa.
943 20 05 94

T. Etxebarria, 8 - behea



PINTURAS ARRATE, S.L.

- Nexa Autocolor
- Pintura industrialia
- 3M produktuen banatzailea

ARANE, 13 parrate@terra.es
Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89



Pinturas Elias e Hijo, S.L.

pintura eta estaldura mota guztiak

BARAKALDO, 7
Telefonoa: 943 12 05 02
Mobilak: 618 27 28 91 / 639 76 27 97



MALVAR PINTURAS

Sostoa, 16 ac behea
Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900
Mobila. 656 784 396



Pintura Goi mailako dekorazioa

Pago Kalea, 35 DURANGO
Tel. / Faxa: 94 620 03 01
Mobilak: 607 41 71 81
666 74 30 98

SARRILAGINTZA



GILTZAK

Era guzietako sarrailen salmenta eta mantenua
Segurtasun-instalakuntzak
Sarrailen egokipenak
Segurtasun kutxak
Era guzietako giltzen kopiak
Trabatutako atearak eta segurtasun-kutxak askatzen ditugu

LARRIALDIETARAKO: 943 701 391
(08.00etatik 24.00etara)

Arragueta, 3 www.giltzak.com
Tfnoa. 943 70 13 91 Faxa. 943 20 86 99

Udako ikastaroetan murgilduta

Ekainaren 27az geroztik martxa betean dihardute Udako Euskal Unibertsitatean, udako ikastaroak eskaintzen. Aurten 39. edizioa betetzen dituzten ikastaroentzat aukeratutako izenburua "Udako ikastaroak murgildu" izan da, hain zuzen eta ikastaroen arduradunek azaldutakoari jarraituta "udako

goi mailako euskarazko formazioa prest eta gertu baitago UEUn". Eta gure kasuan, gainera, ezin gertuago, antolatu dituzten 35 ikastaroetako asko Eibarren bertan, Markeskuan ematen dihardute eta. Gainontzekoak Baionan eta Iruñean emango dituzte.

TXANDA BITAN BANATU DUTE EIBAR-KO ESKAINTZA eta, ohikoa den bezala, ikastaroetan landutako gaiei begira aukera benetan zabala izan dela begibistakoa da. Ekaineko azken astean Markeskuan emandako ikastaroak hauek izan dira: "3D grafikoa Blender erabiliz" (Diseinua, Informatika), "Ordenagailuz lagundutako itzulpena MS Word gabe: Wordfast Pro, Anaphraseus

eta OmegaT" (Itzulpen-gintza), "Proiektuak eraikitzen" (Pedagogia), "Ipuinen funtzio pedagogikoa: balioak transmititzeko eta harremanak lantzeko" (Pedagogia/Literatura) eta "Sormena garatuz hezkuntza abentura zirraragarri batera" (Psikologia). Eta aste honetan Markeskuak hartutakoak, berriz, honako hauek dira: "Euskal Herriko Ahozko Ondarea: Bilketa, katalogazioa eta hedape-


na" (Hizkuntzalaritza), "Ordenagailuz lagundutako itzulpena MS Word gabe" (Itzulpen-gintza), "Arduino eta hardware liberako sarrera" (Informatika / Elektronika), "Zoriontasunaren bila (heziketa emozionala)" (Psikologia / Hezkuntza), "Gestalt terapia. Autoestima lantzen" (Psikologia) eta "Auzolana eta herrigintza: Bizimodu komunitarioak berpiztuz" (Soziologia).

I k a s t a r o e t a n e s a n a k



GARAZI URDANGARIN

"Gaur egun beste era bateko ipuinak sortzen hasi dira, sexismotik at"




AITOR SOROA

"3D-a sormen tresna izateaz gain, erabat kreatiboa ere badela esango nuke"



EIDER GOIBURU

"Ideia onak izatea baino garrantzitsuagoa da ideia horien proiektua modu eraginkorrean garatzea"




IXIAR GARZIA

"Sormena gauzen aurrean aktiboago kokatzen gaituen jarrera bat da"



ELENA Gª BERASATEGI

"Euskal Herrian, itzultzaile asko egoteaz gain, hizkuntzekiko sentsibilizazioa dago"



MIRIAM PEÑA

"Gaur egungo haur-literaturan klasikoetako pertsonaiak sartzen dituzte oraindik"



MAIDER LIKONA

"Arduinoa plataforma egunerokotasun jardueretara zuzendu ahal izatea interesgarria da"



JON SARASUA

"Euskarari hauspoa emateko sortutako erakundeak auto-eraketatik sortu dira"

Asier Sarasua "Euskal Herriko ahozko ondarea: Bilketa, katalogazioa eta hedapena" ikastaroaz arduratzen da UEUK Eibarren antolatutako udako ikastaroetan. Ahozko ondarearen inguruan egindako proiektuak aztertzea, horrekiko perspektiba orokorra zein historikoa ematea bat, eta gaur egun, XXI. mendean, ahozko ondarea batzuko oinarri teoriko batzuk ezagutzea dira ikastaro honen helburuak. Horrela, ikastaroko parte-hartzaileak honelako proiektuetan parte hartzeri animatu nahi ditu. Aspalditik ahozko ondarearen inguruan lanean diharduen Badihardugu Deba Barreneko Euskara Elkartearekin elkarlanean antolatuta dago ikastaroa.

- Ahozko ondareak berebiziko garrantzia dauka gure aurrekoen informazioa gureganatu ahal izateko, baina ez al da egia ahozko transmisioak kulturako hainbat informazio galdu duela?

Bai eta gehienbat azkenengo 30-40 urtean. Nik aldaketa Europa mailan gertatu dela uste dut eta, nola ez, Euskal Herrian. Bizimoduak betidanik aldatuz doaz eta momentuko ohiturei egokitzen zaizkie. Ondorioz, ahozko ondarea aldatuz doa. Baina azkenengo 60 urtean aldaketa oso azkarra izan da eta transmisioan etenaldi bat izan da. Hau da, lehen aitona-amonek guraso zein ilobei egindako transmisio hori familia guztietan ziurtatuta zegoen; aldiz, azken 40 urtean hori galdu eta eten egin da. Hala ere, bizitzako aro askotan ondarea galdu ete den sententzia izan da.

- Ahozko ondarearen bitartez informazioa transmititu izan da betidanik, baina zein esparrutan nabaritu izan da gehien ahozko ondarearena?

Zaila da esatea, gizarte multzo askotan dena ahoz aho transmititu izan baita. Esaterako, Euskal Herrian eta euskaraz %95 ahoz transmititu da. Beraz, esparru guztietan garrantzia du, eguneroko bizimoduan, sineskeran, ohituretan... dena ahoz transmititu da. Euskal Herrian beste faktore bat ere badaukagu: hizkuntza bera. Munduko hizkuntza guztiak aldatuz badoaz ere, euskarak urteroko aldaketak izaten ditu, besteak beste, 60ko hamarkadan euskararen batasunarekin edota 70-80ko hamarkadetako normalizazio linguistikoa, alfabetatzea... Alde onak lortu baziren ere, horrek herri hizkuntzen galera ere eragin zuen eta ez hori bakarrik, era egiteko moduek ere aldaketa izan baitzuten. Beraz, Euskal Herrian gehien aldatu den elementua hizkuntza dela esango nuke.

- Ahozko ondarearen zeregina "historia-



ASIER SARASUA:

“Esango nuke hizkuntza dela Euskal Herrian gehien aldatu den elementua”

ren berri zuzenean bizi izan zutenengan-dik jaso eta ondorengoei eskaintzea” litzateke. Baina egun teknologia berrien erabilera ikusita, esango zenuke ahozko transmisioa guztiz galduko dela?

Ez dira bata besteren kontra jarri behar. Hortaz, teknologia berriak lagungarriak izan behar dira informazioaren bilketan, katalogazioan, hedapenean eta transmisioan ere bai. Era berean, ahozko transmisioaren lagungarria izan daiteke eta egungo eskoletan teknologia berrien bidez jasotako informazioa zabaltzen da. Gizarte aldaketan ondorioz, ez gara orain ehun urteko gizarte eredurak bueltatuko. Beraz, gizarte aldaketak eta telebista eraginak ere asko aldatu dute gizarte moldea, transmisioa... Garai batean gauzak ondo eta era luzatuan kontatzen ziren, baina egun laburrak izan behar dute "YouTube estilora", bi minututik beherako istorioak. Beraz, ondarearen transmisio berri honetan alde onak eta txarrak aurkituko ditugu, baina tradizioa eta teknologia berriak uztartzen jakin behar dugu eta bakoitzaren alderik onena erabiltzen hasi.

- Orokorrean zelan ikusten duzu ondarearen etorkizuna? Bilaketa, katalogazioa eta hedapenean lanean aritzeko prest ikusten duzu gizarte?

Ondarea hor egongo da, aldatzen joan arren. Orain 60 urteko tradizio asko ez direla berreskuratuko eta lexikoa ere galdu egingo dela garbi dago. Hainbat ohitura edota tradizio galdu egingo dira, nahiz eta horien inguruko informazioa jasota izan, agian museo batean. Adibidez, Euskal Herriko hainbat herri hizkerarekin hori pasatuko da eta dagoeneko gertatu da. Erronkariara jasota dago, baina hiztunik ez da gertatzen. Beraz, teknologia berrien eta ahozko ondarearen elkarlana garrantzitsua izan da. Teknologia berrien bidez eginiko hainbat informazioren bilketa badago, baina antzinako tradizio bidez egindakoak ere ugarriak dira.

- Ez duzu uste euskararen kalitatea galduz joango dela, ondarea modernizatuz joan ahala?

Munduko beste hainbat hizkuntzarekin bezala, euskararekin ere aldaketak pairatu ditugu eta pairatuko ditugu. Euskarak jasan dako aldaketak baino, herrietako hizkera galdu eta batasuna ematen ari da. Horrek pena pixka bat ematen du, baina eboluzio logiko bat ere izan daiteke. Horrela, euskararen normalizazioa eta zabalkundea eman da. Beraz, ez da kalitate kontua, aldaketarena baiziki.

Peñen arteko Eibarko Hiria torneoak jokatu da hurrengo asteburuan

HIRU EGUNEKO EGITARRAUA PRESTATU DU ESKOZIA LA BRAVA EIBARKO PEÑAK Peñen arteko V. edizioa. Oraingoan eurak izango dira anfitrioiak eta torneoak Ipuruako anexoan jokatu dira hilaren 22tik 24ra; bestelako peñak, Euskal Herritik aparte, Asturiasetik, Errioxatik, Gaztela-Leongotik eta Andaluziatik etorriko dira. Eibartarrak A multzoko zerrenda-buru izango dira eta eurekin jokatu dute Logroñeseko Resaca Blanquirroja, Salamancako Fondo Joven eta Palentziako Coalición Morada; B multzoan, bestalde, Cordobamanía azken edizio bietako txapelketa izango da

zerrenda-buru eta berarekin izango dira Leonesako El León Rampante, Xixongo Tsunami Sportingista eta Barakaldoko Baraka Gazte Taldea, iaz Eskozia la Bravarekin taldea osatuz Leonen parte hartu zuen peña.

Barixakuan, hilaren 22an, 19.00etan harrera egingo zaie taldeei Arrate Hotelean (hor hartuko dute ostatu kapnptok etorritako peña guztiek); jarraian herri-poteoa egingo dute eta soziedade batean afaldu. Zapatuan goizeko 10.00etan hasiko da txapelketa eta, behin sailkapena eginda eta kanporaketak erabakita, domeka eguerdian, 12.30etan, jokatu da finala.



Deportiboko xakelariak oporretan ere xake-taularen aurrean

BADIRA OPORRAK... ETA OPORRAK. IAZKO ESPERIENTZIA-RI GUSTOA HARTU DIOTE dirudienez Klub Deportiboko xake taldekoek eta aurtan ere kanpora joango dira jokatzera, Italiara izan beharrean Holandara joango badira ere: Vlissingen herrian Hogeschool Zeeland xake txapelketaren 15. edizioan izango dira Joan Arana, Mikel Larreategi eta Edu Olabe, Arrasateko Asier Etxagibel eta Irungo Joseba Izquierdoekin batera, hilaren 30etik abuztuaren 6ra arte. Julen Garrok, bestalde, Euskadiko txapelketan lortutako sariaz gozatuko du Espainiako 18 urtez azpiko txapelketan: hilaren 24tik 31ra jokatu da lehiaketa hori Galiziako Padrón herrian.



Iaz Italiako Fermo hirian izan ziren eibartarrak, Adriatikoko kostaldeko hiri horretan jokatuak I. Xake Jaialdian.



Realak eta Eibarrek ere partidua jokatu zuten Arrateri laguntzeko.

Arrateren etorkizuna erabaki ezinik

EZ ARRE, EZ ISO: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK EGUN BATZUK GEHIAGO ESKATU DITU Arrate eskubaloi taldeak eskatutako diru-laguntza emango dion ala ez erabaki aurretik. "Neurri bakar batekin konparaziozko bidegabekeria egiteko arriskuan sartu gintezke eta ez dugu halakorik egin nahi", diote Diputazioetik hartu beharreko erabakia atzeratzearen arrazoia justifikatzeko. Eibarko klubak aurreko Di-

putazioko taldeak agindutako 400.000 euro eskatzen ditu, batez ere Asobal Ligako taldeari eutsi ahal izateko: Arratek, dena dela, ia bi milioi euroko zorra du une honetan. Bestalde, Natasha Bergara gaur egungo gerenteak Asobal Ligako jarraipen batzordean aurkeztu zuen atzo talde zuri-urdinaren biabilitate plana eta gaur arratsaldean (19.30etan) beste ez-ohiko batzar bat egingo dute gestora berria osatzeko.

Foball-7ko torneoaren finalerdietan

BIHAR JOKATUKO DIRA TORNEOAREN FINALERDIETAKO PARTIDUAK: Roketxe eta E.G.S.-ren artekoa 10.00etan hasita eta La Naranja Mekanika eta Smack Down-en lehia handik ordu batera, 11.00etan hasita. Horko irabazleak hilaren 22an jokatu den finalean neurtuko dituzte indarrak txapelak noranzko bidea hartuko duen jakiteko: azken partidu hori 20.00etan hasiko da eta aurretik, 19.00etan, 3. eta 4. postua izango da jokoan finalerdietako galtzaileen artean.

Tenisean egiteko aukera


AURTENGO UDAKO KANPAINAN TENISA SARTU DA KIROL MODALITATE BERRI MODUAN, 7 urtetik 14 urtera arteko partehartzailerekin. Hainbat ariketa eginez eta jolasen bidez, tenisa eskaintzen dituen aukerak ezagutu ahal izan dituzte, esperientzia aberasgarria bilakatuz. Hurrengo ikasturterako, bestalde, urritik hasita kurtsoa amaitu arteko jarraipena eman nahi zaio. Informazioa nahi izanez gero, Ipuruako bulegoetan eta Unbeko sarreran eman- go zaizue.



Mutrikun beachpolo torneoaren bosgarren edizioa bihar

AURTENGO EDIZIOA, DENA DELA, GAUR INAUGURATUKO DA, 19.00-ETAN HASITA Urdat-eko eta Wp Donostiko eskolakoek jokatuko duten partiduarekin. Bihar, bestalde, 09.30etan hasita, gizonezkoen hamabi talde eta emakumezkoen lau izango dira lehian, eurretatik Kataluniatik etorritako sei talde eta Italiako beste bat. Ikuskizuna ziurtatuta dago, Ohorezko Mailako talde bi

izango baitira (eurretatik bat, emakumezkoen Sant Andreu, Espainiako azpitxapelduna da), 1. nazional mailako beste batekin eta 2. mailako beste birekin. 12.30etan, urtero moduan, esklerosi anizkoitzaren aurkako borrokaren alde igeri egingo dute eta arratsaldean, 16.30etan, torneooko finalak jokatuko dira. Sari banaketarekin amaituko da aurtengo edizioa, 19.15etan.



Mikel Arruabarrenak kontratua du Eibar-ekin, baina hobeto moldatu da Leganés-en hemen baino.

Atzo hasi zuten aurrendenboraldia Eibar Foball Taldeko plantilak


HAMALAU JOKALARIREKIN BAKARRIK HASI ZUEN AURRENENBORALDIA EIBAR FOBALL TALDEAK atzo goizean; hala eta guztiz ere, ez da lehenengo aldia hain jokalaria gutxiarekin egiten duela lehenengo saioa Eibar-ek eta astia du oraindik taldea indartzeko. Aurten, dena dela, plantila murriztagoa izatea erabaki dute arduradunek eta Fran Garagarzak Jesus Merinoren postua hartuko du idazkaritza teknikoan. Kontratua

zuten Erdozia, Añibarro, Etxaniz, Ros, Abaroa, Altuna, Vincent, Zigor eta Arruabarrenarekin, beste hiruk -lurretageoienak, Lombrañak eta Espínekberri egin dute euren kontratua eta Eneko Bóveda atzelaria (Bilbao Athletic-etik) eta David Mainz (La Muelatik) aurrelaria dira orain arteko fitxaketa bakarrak. Eurekin entrenatuko dute bigarren taldeko Aitor Arregi erdiko atzelariak eta Markel Salgado punta-erdiak.



Mendi federazioko txartelen tramitazioa

KLUB DEPORTIBOKO MENDI BATZORDETIK BIDLITAKO OHAR BATEAN jakinarazten denez, uztailaren 22a izango da mendi federazioko



txartelak tramitatzeko azken eguna. Bulegoan ordutegia ohikoa da: astelehen, eguazten eta barixakuetan, 19.30etatik 20.30etara.


ZAPATUAN JOKATUTAKO DIANA EHIZA ETA ARRANTZA ELKARTEKO BAZKIDE-ENTZAKO PLATER TIRAKETA txapelketan, Miguel Laskurain izan zen onena eta bere atzetik geratu ziren Juan Manuel manzisor, Javier Tudanca, Alberto Martínez eta Mauri Vicuña. Arrateko tiro-pitxoi zelaian jokatutako lehiaketan hoge parte-hartzaile izan ziren.




Laskurainek irabazi zuen plater tiraketa

FCO. JAVIER ARNAIZ SOLÓRZANO (1. urteurrena / 20.07.2010)

Ipuruako lagunak eta Mendi Taldekoak ez dugu sekula ahaztuko zure zintzotasunaren irribarre hau. Agur, betira arte!



Musika-tresnak eszenatokitik hartu eta kalera ateratzen dituzte Debako Elektrotxaranga osatzen duten gazteek. Eibarko Sanjuanetan kaleak girotzen ibili ziren eta udako agenda beteta daukate. Debakoak dira, baina horien artean Iñigo Arizaga eibartarra dago. Gu abeslariarekin egon gara.



IKER VELA, Debako ElektroTxaranga:

“Jendeak musika-tresnak mugitzen laguntzen digu”

- Zer da elektrotxaranga bat?

Modu sinplean esanda, eszenatoki gainean jo ditzakeen abestiak kaleetan zehar jotzen dituen musika-taldea. Edozein musika izan daiteke: ska, punka, rocka...

- Aldea dago eszenatoki gainean edo kalean aritzeak?

Bai, handia. Niretzat hobe da kalean, jendearekin kontaktu handiagoa daukazu-eta. Gainera, horrela jendea ikuskizunaren parte egiteko aukera duzu, denok parte-hartzeko. Ez badugu sentsazio hori lortzen, jendeak parte-hartu eta bat izan garela, ikuskizunari zerbait falta izan zaion sentsazioa geratzen zaizu.

- Musika-tresnak kalean alde batetik bestera ibiltzea ez da, bada, eroso izango.

Hasieran motxilan sartuta eramaten genituen anplifikagailuak eta abar, batetik bestera, baina potentzia gutxikoak ziren eta guk soinu-kalitate gehiago lortu nahi genuen. Orain, handiagoak direnez, karroan eramaten ditugu kalean. Onena da jendeak askotan lagundu egiten digula gauzak mugitzen.

- Nolako musika egiten duzue?

Denetarik, gauzak nahasten. Jai giroan ibiltzeko eta abar ska musikak arrakasta dauka jendearen artean, baina rocka ere egiten dugu.

- Nolako harrera izan du elektrotxarangak publikoaren artean?

Iazko maiatzean hasi ginen Deban, gehienbat probatzeko, eta ondo irten zen. Ezin gara kexatu izan dugun harreraz.

- Eta nolako izan zen Eibarko Sanjuanetako giroa?

Ona. Aurretik Gaztetxe Egunean jardun genuen eta orduan baino jende gehiago izan dugu inguruan Sanjuanetan.

- Nola datorkizue uda?

Joan den astera arte astero ibili gara jotzen; orain 2-3 aste-ko atsedena hartu dugu bakoitzak zereginak zituelako. Eta irailera arte martxa betean jardungo dugu, jairik -jai.

- Zenbatek osatzen duzue elektrotxaranga?

Bederatzi gara, baina kanpora ikastera joandako bat bueltatzen bada, 10 izango gara.

- Eta izena, 'Debako elektrotxaranga'?

Besterik okurritu ez! (barreak). Ez gara ados ipini izenarekin eta hori erabiltzen dugu. Pentsatzen gabilta hala ere.



Cielitok kontzertuak eskaintzen ditu herriko auzoetan. / MAIALEN BELAUSTEGI

Cielito Musika Bandaren gaueko kontzertua T. Etxebarrian gaur

GAUR GAUEAN, 23.00-ETATIK AURRERA, CIELITO MUSIKA BANDAK GAUEKO KONTZERTUA eskainiko du Torbio Etxebarria kalean. Carlos Sánchez Barbak zuzenduko duen emanaldian eskainiko dituzten piezak honako hauek dira: “Fiesta en Sevilla” (pasodoblea, R. Dorado), “Erritxikiko jaiak” (intermediaoa, E. G. Arroitauregi), “La del manojo de rosas” (aukeraketa, N. Iwai-ren moldaketak) eta “Mambo jambo” (mamboa, Pérez Prado):




Perurenak hainbat anekdota kontatu zituen Kultuko hitzaldian. / SILBIA HERNANDEZ

Perurenak harriaz jardun zuen

MARTITZENEAN IÑAKI PERURENA HARRIJASOTZAILEA ARRATE KULTUR ELKARTEAN IZAN ZEN HITZALDIA EMATEN eta bertaratu zirenek harriak berari eman dion bizia eta harriarekin bizitzeko zentzuaren inguruko azalpenak bere ahotik zuzenean entzuteko aukera paregabea izan zuten. Jende asko erakarri zuen ekitaldia

Arrate Kultur Elkartean atek berriro zabaltu dituela-eta antolatutako egitarauaren barruan kokatu behar da eta ...eta kitto! Euskara Elkartearekin elkarlanean jardun dute Kultukoek, Topagunearen Kultur Errotaren programazioaz baliatuta.



Bertso afarirako txartelen salmenta

URTERO LEGEZ, ARRATE EGUNAREN BEZPERAN, IRAILAREN 7-AN BERTSO-AFARIA EGINGO

DA Kantabria jatetxean, 21.00etan hasita. Honezkero "fijoak" diren Sebastian Lizaso eta Andoni Egañari aurtien Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus gehituko zaizkie, betiko moduan goi-mailako kartela osatuta. Lau bertsolariak Asier Ibaibarriaga gai-jartzailearen esanetara jardungo dute.






Arrate bezperan izango da bertso-afaria. / LEIRE ITURBE

...eta kitto! Euskara Elkarteak Arrateko jaietarako antolatutako bertso-afarira joateko txartelak datorren astelehenean hasi eta uztailearen 27ra bitartean ipiniko dituzte salgai, bazkideentzat bakarrik ...eta kitto!-ko egoitzan bertan (Urkizu, 11 solairuarterean) eskainiko den aurre-salmentan: bazkide bakoitzak gehien jota sarrera bi erosteko aukera izango du, 27 eurotan, 10.00etatik 13.00etara eta 16.00etatik 19.00etara. Hortik aurrera, uztailearen 28an hasi eta txartelak amaitu arte, edozeinek izango du txartelak erosteko aukera (28 eurotan), Sagarbitza eta Kultu taibernetan zein Kantabria jatetxean bertan.


Ixuako argazki lehiaketako irabazleak

IXUAKO PASUA ARGAZKILARITZA LEHIAKETAREN BIGARREN EDIZIO-RA AURKEZTUTAKO 11 lanen artean onena Federico Unzaga soraluzetarrarena izan dela erabaki du Jose Luis Martínez, José Vila, Juan Antonio Palacios eta Ramon Arizagak osatutako epaimahaiak. Irabazlearekin batera finalerako sailkatutako beste bi lanak Fernando Retolaza eibartarrarena eta Oscar Matxin arrigorriagarrarena izan dira. Lehiaketan saria eraman duen irudia Valentziaga Memorialaren aurtengo edizioan egindakoa da, Ixua baserriaren azpitik doan bidearen azken kilometroan hartutakoa.



Don Mendoren mendekua klaustroan

AURREKO ASTEKO BARIKAKU GAUEAN SAN ANDRES ELIZAKO KLAUSTRORA JOANDAKO-AK PRIMERAN egon ziren Teatro Interior taldeak eskainitako ikuskizunaz gozatzen: Maite Lorenzo, Eduardo Falces, Juanma Cano eta Sardo Irisarri



antzeztutako "Una noche de verano con Don Men- do y..." lanari laguntzen Naome eta Yasmin Saoud musikariak izan ziren, piano eta biolinarekin zuzenean.

Lorenzo, Falces, Irisarri (irakurtzen) eta Cano ikuskizunean.. / MAIALEN BELAUSTEGI

laburrak

URDAIBAIRA TXANGOIA

Hilaren 21erako Urdaibai eta Biosferaren Erretserba ezagutzera joateko irteera antolatu dute Untzaga jubilatutako etxekoek.

Autobusa 08.45etan irteerako da Ego-Gainetik eta bisita 10.00ak aldera hasiko da. 14.30etan bazkaldu eta ondoren bakoitzak nahi duena egiteko aukera izango du. Txartelak bulego ordutegian erosteko aukera izango da (25 €).

KARIBEKO DANTZAK

Arrateko Krabelin hotelak biharko jardunaldi berezia antolatu du: afari koktelarekin hasi eta, jarraian, Karibe aldeko erritmoetan trebatzeko aukera izango da, Txema Ballesteros maisuaren laguntzarekin. Dantzaldiak 02.00ak arte iraungo du.

SANTANDERRERA ZEENZALEEKIN

Pedrucho zezenzaleen elkarteak uztailearen 23rako Santanderrera irteera antolatu dute. 09.00etan Ego Gaineko autobus geltokitik irten eta hamarretakoa bidean egingo dute. 11.30ak aldera Somon barkua hartu eta Santanderren eguerdian egotea espero dute, han bazkaldu eta arratsaldean, 17.30etan jatetxetik zezen-plazara joango dira, 18.30etan hasiko den nobillada ikustera: Victor Barrio, Sergio Flores eta Mario Alcalde nobilleroek jardungo dute. Eibarrera buelta 22.00ak aldera egingo dute. Irteeraren prezioa 75 eurokoa da bazkideentzat (85 bazkide ez direnentzat), autobusa, hamarretakoa, barkua, bazkaria eta zezen-plazarako sarrera barne. Txartelak Arkupe, Leo, Zubi-Gain eta Egogain-en eros daitezke (uztailearen 21eko 19.00ak arte).

Gitarra akustiko eta elektrikoa, kalinba eta ukelelea hartu eta Bergarako Zabalotegi aretoan lagun artean grabatu zuen Napoka Iriak disko berria. 'Lehertarazi edifizioak' izenburupean atera dute kalera hain kritika onak izan dituen lan berria. Miren Narbaiza eibartarra eta Ander Mujika elgoibartarraren musika zuzenean entzuteko aukera izango dugu berehala.



MIREN NARBAIZA, (Napoka Iria):

“Ederra da instrumentu berriak deskubritzea”

- **Disko berria kaleratu duzue. Nolakoa izan da lan berri honen 'erditzea'?**

Bagenuen azken argitalpenen osteko kantu berriekin zerbait egiteko gogoia eta, beraz, pozik gaude grabatu eta jadanik kalean delako. Izan ere, azkenean uste baino luzeago joan da kontua.

- **Nolabait esateko, zuen lehen disko luzea izan da. Oso ezberdina aurreko lanekin alderatuz?**

Aurreko lan biak estudioan grabatu genituen. Hau, berriz, jendaurrean grabatu dugu eta horixe da ezberdintasun nagusia. Kantuak egiteko moduak eta gero diskoa apaintzeko lanak berberak izan dira.

- **Zabalotegin grabatu zenuten. Zergatik han eta ez estudioan?**

Estudioan sartu izan garenetan Anderrek eta biok aldi berean grabatu izan dugu, kontzertuetan moduan. Horregatik pentsatu genuen polita izango zela grabaziora jendea gonbidatzea eta jendaurrean grabatzea diskoa. Beraz, areto batean egitea erabaki genuen. Bergarako Zabalotegik 100 lagun inguru hartzen ditu eta akustika ona dauka. Oso ondo joan zen dena, lagun asko izan genituen ondoan. Bertako langileak ere primerakoak.

- **'Lehertarazi edifizioak' izena dauka diska. Ez zenuten Zabalotegi musikarekin lehertaraziko...**

Esan behar da beste zuzeneko batzuetan gehiago lehertarazi izan dugula, esan go nuke diskoa entzutean nabari daitekeela grabazioetako tentsio hori, geure gainean. Baina nik uste lan polita gelditu dela, kantu asko ezagunak dira kontzertuetan jo izan baititugu. Beste batzuk berriagoak dira eta inprobisazioren bat ere sartu dugu. Diskoaren izenburua bertako kantu batetik hartu dugu, zuzenean asko gozatzen dugu abestiarekin.

- **Ateak irekita egin zenuten grabaketa. Jendearen partehartzea somatzen da? Diskaren parte egin dituzue bertara joan zirenak?**

Bai, igartzen da jendaurrean grabatuta dagoela, publikoa presente dago, zuzeneko grabazio batean moduan.

- **Anderrek eta Mirenek, Mirenek eta Anderrek osatzen duzue Napoka Iria. Musikari bi, baina gitarra akustiko eta elektrikoa, ukelelea, kalinba, ahotsa... erabili dituzue. Nola moldatzen zarete hori dena egiteko?**

Ba... probatuz eta jolastuz. Ederra da instrumentu berriak deskubritzea, eta kontu pixkatekin uztartuaz gauza politikak egin daitezke.

- **SuTaGarren Zure Atzetik abestiaren bertsioa egin duzue... kalinba eta ukelelearekin!**

Bertsio bitxia geratu da, guri pilo bat gus-tatzen zaigu eta jendeari ere badirudi baietz, kontzertuetan koroak ez dira faltan izaten.

- **Berba politik jaso ditu diska berriak. Kasu egiten dizkiezue kritikei?**

Nik ez dut oraindik bat ere irakurri! (barreak) Kritikak irakurtzea ez dago inoiz soberan, beti ikasi daiteke zerbait batetik. Baina ez dut uste horri begira egoten garenik, guk geureari eusten diogu eta guk egin nahi duguna egiten dugu.

- **Eta diskaren salmentari?**

Ez ditugu milaka kopia egiten eta beraz, ez dago asko galtzeko arriskurik. Horrek ez du esan nahi begiratzen ez diogunik. Saltzea beti dago ondo, eta dirua bueltan etortzen bada ba askoz hobeto! Lehen maketako 500 kopiak agortu ziren, berriaren 1000 ale atera ditugu, ikusiko dugu zela saltzen den!

- **Diska zuzeneko kontzertu bitan grabatu zenuten, eta hortik kanpo ere jarraitu duzue kontzertuak han eta hemen eskaintzen. Nola dator uda Napoka Iriarentzat?**

Uztailaren 28an Eibarko Karrikan joko dugu, bertan aurkeztuko dugu diskoa. Izan ere, taberna bat baino gehiago, kultur gune oso oparoa da Karrika eta pozik gaude bertako ekintzetan parte hartzeaz. Irailean jarraituko dugu jotzen, Arrasaten irailaren 9an, Irunen 18an eta Bergaran 23an.

Luis Mari Gorosabel Aristegi-ren

heriotzaren 10. URTEURRENA

EZ AGURRIK,

GURE BIZITZAN ZAUDE BETIRAKO.

MAITE ZAITUGU. *Etxekoak*


Eibar

2010eko uztailaren 31




laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, JOSU Talán Oiarbide, zapatuan bost urte egin zenduaz-en-eta. Etxekuen partez.




Zorionak, PAULE. Etxeko txikixak bete dau urtia. Muxuak, potxola, aitta, ama, Ekhi eta famelixaren partez.




Zorionak, ANE, zure hamargarren urtebetetzian. Kaixo Eibarko laguneri Donostia aldetik.



Zorionak, LORE Arregi Cabezón, hillaren 22xan sei urte egingo dozuzelako. Famelixa guztiaren partez.




Zorionak, UXUE Riaño Garzón, gaur urtia betetzen dozu-eta. Aitxitxa eta amamaren partez.



Zorionak, JUNE Artetxe, hillaren 20xan zazpi urte beteko dozuz-eta. Famelixaren partez.




Zorionak, MALEN, hillaren 22xan sei urte egingo dozuzelako. Patxo haundi bat famelixaren partez.




Zorionak, ZOIHARTZE, gaur hiru urte egitten dozuz-eta. Gure sorgiñari, etxekuen partez.



Zorionak, ANE Alberdi, zure zortzigarren urtebetetzian. Zeiñ haundi zagozen. Muxu haundi bat, neskatxa!




Zorionak, UXUE, hillaren 20xan sei urte beteko dozuz-eta. Muxuak famelixa guztiaren partez.



Zorionak, UNAI, datorren eguenian zortzi urte egingo dozuzelako. Muxutuak etxekuen partez.




Zorionak, MARTINA, hillaren 27xan lau urte beteko dozuz-eta. Aupa Txupi-Txupi. Malen eta gurasuen partez.




Zorionak, SUSANA, hillaren 23an urtiak beteko dozuzelako. ALBA eta famelixa guztiaren partez.




LAURA eta ANDER zapatu honetan ezkonduko dira. Danok disfrutatuko dogu egun horretan.




Zorionak, MAIALEN Agirregomezkorta Diéguez, hillaren 29xan hiru urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, JUNE! Bederatzi muxu haundi zuretzat famelixa guztiaren partetik.



Zorionak, CONCHI Fernández, atzo zure urtebetetzia izan zalako. Zure mutillaren partez.



Zorionak, ELAIA alai, zure lehelengo urtebetetzia dalako. Patxuak etxekuen partez.




Zorionak, KARMELE, astelehenian bederatzi urte egin zenduaz-en-eta. Etxekuen partez.

HILDAKOAK

- Carmen Etxebarria Lekunberri. 84 urte. 2011-VII-7.
- Adela Diéguez Del Río. 87 urte. 2011-VII-8.
- Gregoria Juaristi Azpiri. 95 urte. 2011-VII-8.
- Alberto Eibar Iraolagoitia. 72 urte. 2011-VII-10.
- Jose Eugenio Gómez Alcedo. 50 urte. 2011-VII-10.
- Angel González Tabernero. 81 urte. 2011-VII-12.

JAIOTAKOAK

- Martina Gabilondo Murga. 2011-VII-3.
- Eider Varona Arizmendiarieta. 2011-VI-7.
- Joane Vega Mata. 2011-VII-8.



Laister beteko dogu urtebete elkarrekin, emoiñoz betetako urtia, eta etortzeak diran beste askoren atari. Muxu haundi bana aittaren partez.

horoskopoa

ARIES

Hilabete benetan ederra biziko duzu. Aspaldiak pasa ez dituzun opor zoragarriak dituzu aurretik eta ondo aprobetxatuko dituzu.

TAURUS

Ez duzu oso gaizki pasatuko, baina denetarik gertatuko zaizu hurrengo asteotan. Abentura polita biziko duzu gutxienez.

GEMINI

Gauzak bere lekuan jartzeko sasoi heldu da. Denbora edukiko duzu dena ondo pentsatu eta gauzatzeko: mesede egingo dizu.

CANCER

Badirudi dena kontra daukazula, baina inolaz ere. Gauzak zuk nahi bezala irtengo dira, are gehiago, hobeto irtengo dira!

LEO

Lasai datoz oporrek zuretzat. Erlaxatu, irakurri, eguzkia hartu, pilak kargatu... kurtso berriari gogo biziz ekiteko moduan.

VIRGO

Zerbait harigarria gertatuko zaizu datozen asteotan. Bizitza markatuko dizu eta ez duzu erraz asimilatuko. Hartu lasai!

LIBRA

Goza ezazu udaz ahal bezain beste, baina uretan sartu aurretik begiratu ondo ea marmokaren bat edo beste inguruan dabilen.

SCORPIUS

Jai-giroan pasako dituzu datozen asteak. Ederra martxa daukazuna; ez dago geldituko zaituenik. Gora bihotzak! Edo holako zeozer!

SAGITTARIUS

Kupidok bere lana ederki egingo du udan. Txoratuta lagako zaituen pertsona ezagutuko duzu. Udako maitasun-historia bakarrik?

CAPRICORNIUS

Badakizu denbora ederki aprobetxatzen eta udan honetan ez da gutxiagorako izango. Ondo pasatuko duzu uda, benetan!

AQUARIUS

Gauza berri asko ezagutuko dituzu, baina, batez ere, lagun berriak. Oso aberasgarria izango da zuretzat eta mundu berria irekiko dizu.

PISCIS

Ez duzu gauza handirik behar ondo pasatzeko: edozerrekin konformatzen zara. Espiritu horrekin uda berezia biziko duzu.

Barixakua 15**AMAÑAKO JAIK**

13.30.- Jubilatuen bazkarira joateko autobusen irteera.

14.00.- Bazkaria, Kantabria jate txean.

21.30.- Bertso-afaria, Mañukorta eta Zeberio bertsolariekin. Caserio jate txean.

KONTZERTUA

20.00.- Eroa Nazan (estreneko kontzertua). KARRIKA tabernan.

KONTZERTUA

23.00.- Cielito Musika Bandaren kontzertua. Zuzendaria: Carlos Sánchez Barba. Egitaraua: "Fiesta en Sevilla" (pasodoblea, R. Dorado), "Erritxikiko jaiak" (intermedioa, E. G. Arroitauregi), "La del manojo de rosas" (aukeraketa, N. Iwai-ren moldaketak) eta "Mambo jambo" (mamboa, Pérez Prado). Toribio Etxebarria katean.

Zapatua 16**KOKTAIL AFARIA**

21.00.- Koktail-afaria eta Karibeko dantzak ikasteko oinarrizko saioa, Txema Ballesteros irakaslearekin. Krabelin hotelean.

Eguena 21**ODOL ATERATZEA**

18.30.- Odola ateratzea, odol-emaileentzat. Odol-emaileen elkartearen (Pagaegi, 3 behe).

KOKTAIL-JAIA

22.00.- Koktail jaia. KARRIKA tabernan.

Eguena 28**KONTZERTUA**

22.00.- Napoka Iria kontzertuan, disko berria aurkezten. Ondoren, koktail jaia. KARRIKA tabernan.

Santixauak Goimendin**Domeka 24**

21.30.- Jaien hasiera eta berakatz-zopa, auzoko plazan.

23.00. etatik goizaldera arte.- Erromeria Astiasaran II eta Agurtzane trikitilariekin.

02.00.- Sorpresa.

Astelehena 25

11.00.- Meza.

12.00.- Soka dantza Kezka dantza taldearen eskutik.

12.30.- Bertso saioa Jexux Mari Irazu eta Aitor Mendiluze bertsolariekin.

Ondoren Jon Ostolaza eta Unai Andonegi trikitilarien saioa.

13.00.- Umeentzako jolasak.

18.00.- Herri kirolak, Ruben Saralegi eta Aratz Mugertza aizkolariekin eta Telleria harrijasotzailearekin.

18.30.- Bola-joko txapelketa.

19.00.- Bertso saioa, Jexux Mari Irazu eta Aitor Mendiluze bertsolariekin.

Ondoren, gauerdia arte erromeria Jon Ostolaza eta Unai Andonegi trikitilariekin.

20.00.- Urdaiazpikoaren zozketa eta txokolate-jana.

**San Salvador****Barixakua 5**

20.00.- Kanpai-errepika eta txupinazoa. San Salbadorren.

Zapatua 6

08.00.- Kanpai-errepika eta txupinazoa.

11.00.- Meza.

11.30.- Luntxa.

13.00.- Herri-bazkaria.

17.00.- Herri-kirolak.

20.00.- Erromeria trikitilariekin.

San Salbadorren.

Andramaixak Azittaiñen**Domeka 14**

11.30.- Andra Mariari salbea, Azitaingo elizan.

Astelehena 15

10.30.- Kanpai-errepika eta txapligoak.


11.00.- Herri meza.

11.45.- Umeentzako jolasak.

12.00.- Dantza txapelketa.

12.45.- Herri kirolak: auzoko gazteen arteko norgehiagoka.

14.00.- Jaiaren amaiera.



15. barixakua
EGUNEZ Urizar (J. Etxebarria, 7)
GAUEZ Larramendi (Calbetón, 19)

16. zapatua
EGUNEZ Las Heras (Sostoatarren, 10)
GAUEZ Cortina (Zubiaurre, 29)

17. domeka
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
GAUEZ Larramendi (Calbetón, 19)

18. astelehena
EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
GAUEZ Alberdi (Zubiaurre, 9)

19. martitzena
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ Larramendi (Calbetón, 19)

20. eguaztena
EGUNEZ Las Heras (Sostoatarren, 10)
GAUEZ Las Heras (Sostoatarren, 10)

21. eguena
EGUNEZ Larramendi (Calbetón, 19)
GAUEZ Alberdi (Zubiaurre, 9)

22. barixakua
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
GAUEZ Larramendi (Calbetón, 19)

23. zapatua
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ Aranburu (Gipuzkoa etor., 46)

24. domeka
EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
GAUEZ Mandiola (S. Agustin, 3)

25. astelehena
EGUNEZ Larramendi (Calbetón, 19)
GAUEZ Larramendi (Calbetón, 19)

26. martitzena
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
GAUEZ Larramendi (Calbetón, 19)

27. eguaztena
EGUNEZ Las Heras (Sostoatarren, 10)
GAUEZ Las Heras (Sostoatarren, 10)

28. eguena
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
GAUEZ Cortina (Zubiaurre, 29)

29. barixakua
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ Larramendi (Calbetón, 19)

30. zapatua
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
GAUEZ Ugarte (Sta. Zezilia, z/g)

31. domeka
EGUNEZ Las Heras (Sostoatarren, 10)
GAUEZ Las Heras (Sostoatarren, 10)

ABUZTUA

1. astelehena
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
GAUEZ Larramendi (Calbetón, 19)

2. martitzena
EGUNEZ Las Heras (Sostoatarren, 10)
GAUEZ Ugarte (Sta. Zezilia, z/g)

3. eguaztena
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ Larramendi (Calbetón, 19)

4. eguena
EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
GAUEZ Ugarte (Sta. Zezilia, z/g)

5. barixakua
EGUNEZ Larramendi (Calbetón, 19)
GAUEZ Ibarrondo (Zeharkalea, 2)

6. zapatua
EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
GAUEZ Ugarte (Sta. Zezilia, z/g)

7. domeka
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
GAUEZ Ibarrondo (Zeharkalea, 2)

8. astelehena
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
GAUEZ Ugarte (Sta. Zezilia, z/g)

9. martitzena
EGUNEZ Larramendi (Calbetón, 19)
GAUEZ Larramendi (Calbetón, 19)

10. eguaztena
EGUNEZ Las Heras (Sostoatarren, 10)
GAUEZ Ibarrondo (Zeharkalea, 2)

11. eguena
EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
GAUEZ Mandiola (S. Agustin, 3)

12. barixakua
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
GAUEZ Larramendi (Calbetón, 19)

13. zapatua
EGUNEZ Larramendi (Calbetón, 19)
GAUEZ Ibarrondo (Zeharkalea, 2)

14. domeka
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
GAUEZ Ugarte (Sta. Zezilia, z/g)

15. astelehena
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ Ibarrondo (Zeharkalea, 2)

16. martitzena
EGUNEZ Goikoetxea (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ Ugarte (Sta. Zezilia, z/g)

17. eguaztena
EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)
GAUEZ Elorza (J. Gisasola, 18)

18. eguena
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
GAUEZ Ibarrondo (Zeharkalea, 2)

19. barixakua
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
GAUEZ Lekunberri (Isasi, 31)

20. zapatua
EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)
GAUEZ Ugarte (Sta. Zezilia, z/g)

21. domeka
EGUNEZ Urizar (J. Etxebarria, 7)
GAUEZ Lekunberri (Isasi, 31)

22. astelehena
EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)
GAUEZ Elorza (J. Gisasola, 18)

23. martitzena
EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)
GAUEZ Alberdi (Zubiaurre, 9)

24. eguaztena
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
GAUEZ Aranburu (Gipuzkoa etor., 46)

25. eguena
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
GAUEZ Lekunberri (Isasi, 31)

26. barixakua
EGUNEZ Goikoetxea (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ Alberdi (Zubiaurre, 9)

27. zapatua
EGUNEZ Urizar (J. Etxebarria, 7)
GAUEZ Aranburu (Gipuzkoa etor., 46)

28. domeka
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
GAUEZ Ibarrondo (Zeharkalea, 2)

29. astelehena
EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)
GAUEZ Alberdi (Zubiaurre, 9)

30. martitzena
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
GAUEZ Lekunberri (Isasi, 31)

31. eguaztena
EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)
GAUEZ Cortina (Zubiaurre, 29)

IRAILA

1. eguena
EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)
GAUEZ Elorza (J. Gisasola, 18)

2. barixakua
EGUNEZ Urizar (J. Etxebarria, 7)
GAUEZ Aranburu (Gipuzkoa etor., 46)

3. zapatua
EGUNEZ Goikoetxea (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ Cortina (Zubiaurre, 29)

4. domeka
EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)
GAUEZ Zulueta (S. Agustin, 5)

5. astelehena
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
GAUEZ Aranburu (Gipuzkoa etor., 46)

5. martitzena
EGUNEZ Urizar (J. Etxebarria, 7)
GAUEZ Lekunberri (Isasi, 31)

telefono jakingarriak

SOS deiak112
Pegora010
Udaletxea943 70 84 00
Portalea943 70 84 39
Mdaltzaingoa.....943 20 15 25
Mankomunitatea943 70 07 99
Debegesa.....943 82 01 10
KIUB943 20 38 43
Epaitegia943 03 34 00
Iberdrola901 20 20 20
Naturgas902 12 34 56
DYA Larrialdiak.943 46 46 22
Gurutze Gorria..943 22 22 22
Mendaro osp.....943 03 28 00
Anbulategia.....943 03 25 00
Torrekua943 03 26 50
Errepideak902 11 20 88
Ertzaintza943 53 17 00
Eusko Tren902 54 32 10
Pesa902 10 12 10
Taxiak.....943 20 30 71
.....943 20 15 25
Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DO-NOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

GASTEIZ-EIBAR. Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Laneguna: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Egunero: 15.30. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisu berria (5 urte) eta trasteroa salgai Mendaron. Logela bi. 80 m². Eguzkitsua. 170.000 euro. Tel. 690-787891.

– Pisu salgai Ipuruan. 3 logela, egongela, sukaldea, komun bi eta ganbara. Kalefakzioa. Igogailua. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 690-310927.

1.2. Errentan

– Lan arrazoiak direla-eta, Ermura etorri bazara epe zehatz baterako, pisua alokatuko nizuke Ermua erdialdean. Guztiz jantzia eta igogailuarekin. Tel. 636-257546.

– Pisu alokagai Eibarren. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Eguzkitsua. Deitu 20.00etatik aurrera. Tel. 687-537371.

– 3-4 logelako pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 678-097247.

– Logela biko pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 626-584512.

– Ubixtan buhardila alokagai. Logela bat, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. Internet seinalea. Prezio interesgarria. Tel. 620-611718.

– Elgetan pisua alokagai. Logela bi, egongela, jangela, sukaldea eta komun bi. Eguzkitsua. Tel. 606-083992.

– Pisu handia alokagai Barakaldo kalean. Tel. 653-733457.

– Pisu hartuko nuke alokairuan Amaña inguruan. Tel. 608-474923.

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Estetika negozioa traspasatzen da. Lanean hasteko moduan. Tel. 657-793584.

3.2. Errentan

– Garaje itxia alokagai Urkizun. Tel. 943-127100.

– Garaje itxia alokagai Urkizu inguruan. Tel. 617-688311. Elena.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

1.2. Errentan

1.3. Konpartitzeko

1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

2.1. Salgai

3. LOKALAK

3.1. Salgai

3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erreferentziekin. Tel. 662-252150.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 671-826434.

– Emakumea eskaintzen da etxeko lanetarako, nagusiak zaintzeko eta tabernak garbitzeko. Tel. 630-365137.

– Neska eskaintzen da 10.00etatik 17.00ak arte nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 679-910991.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 674-481945.

– Neska eskaintzen da orduka edozein lanetarako. Esperientzia. Tel. 669-966611.

– Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 646-143287.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 657-394754.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 668-301550.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 657-396018.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Ordutegi zabala. Tel. 689-273664.

– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 628-874887.

– Emakumea eskaintzen da kamarera jarduteko Eibarren edo inguruan. Esperientzia gozotegian, izozki-dendan eta barra eta mahaiko kamarera moduan. Tel. 676-822431.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 666-771151.

– Neska eskaintzen da arratsaldetan nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 609-626366.

4. LANA

4.1. Lan bila

4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskaerak

5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

6.1. Salgai

6.2. Eman

6.3. Galdu/Aurkitu

6.4. Bestelakoak

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 943-257875.

– Neska euskalduna eskaintzen da uztailen umeak zaintzeko. Tel. 663-527434.

– Neska eskaintzen da orduka garbiketarako egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 648-603029.

– Neska euskalduna eskaintzen da uda parteen umeak zaintzeko. Tel. 622-112644.

– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko. Tel. 696-509360.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 646-821678.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 605-129530.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak gauzaintzeko eta garbiketarako lanetarako. Tel. 619-155804.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanetarako. Tel. 671-742142.

4.2. Langile bila

– Zaintzailea behar da irailetik ekainera goizez (07.00-09.30) urte biko umea zaintzeko. Tel. 660-522271 (mezua laga).

– Emakume euskalduna behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Deitu eguerdian edo iluntzean. Tel. 688-841181.

– Kamarera/o behar da extra moduan. Esperientzia eta autoarekin. Tel. 677-638184.

– Aho eta hortz higienista behar da hortz-klinika batean. Bidali kurrikulumak: dentalweb@hotmail.com

– Klinikak laguntzailea behar da hortz-klinika batean. Bidali kurrikulumak: dentalweb@hotmail.com

– Ileapaintzailea behar da. Esperientziarekin. Tel. 620-721007. Sonia.

– Kamarera euskalduna behar da jatetxe baterako. Tel. 943-121262.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

– Gitarra elektrikoko klaseak ematen dira. Tel. 679-740061.

– Informatikako klaseak ematen dira: web orriak nola egin, ordenagailuaren arazoak zelan konpondu... Tel. 647-275374.

– Alemanierazko klaseak ematen ditut: haur, gazte eta helduentzat. Tel. 647-275374.

– LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen ditut udan. Tel. 622-112644.

– DBHko klase partikularrak ematen ditut uztailen eta abuztuan. Euskalduna eta esperientziarekin. Tel. 678-346970.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– “La vida en los océanos” bilduma originala salgai. Oparitzeko aproposa. 10 CD-Bideo. 30 euro. Tel. 679-740061.

– Funtzio anitzeko xurgagailu-robotak salgai. Erabili gabea. Prezioa adosteko. Tel. 943-120030 eta 637-020261.

– Aire egokitu portatila salgai. Olimpia Splendid issimo 11 modeloa. Potentzia: 3.000 frig/orduero. Tel. 659-453667.



DANOBAT

**MAKINA-ERREMINTA SEKTOREAN
AITZINDARIA, MONDRAGON TALDEKO
PARTAIDE ETA ELGOIBARREN KOKATUTAKO
ENPRESAK ONDORENGOAK BEHAR DITU:**

KOMERTZIAL ARLOKO TEKNIKARIA (Erref.0.500)

Eskatuko da:

- Ingeniaritza tekniko edo goi mailakoan formazioa
- Hizkuntzak: ingelesa eta euskara jakitea ahoz eta idatziz
- Beste hizkuntza batzuk menperatzea baloratuko da
- Bidaiatzeko prest egotea
- Komertzial arlorako zalea izatea
- Komunikatzeko gai izatea

PROIEKTUGILE MEKANIKOA (Erref.0.502)

Eskatuko da:

- Ingeniaritza tekniko edo goi mailakoa
- Diseinatzaile mekanikoa 3Dtan
- Esperientzia makinak diseinatzen
- Hizkuntzak: ingeles eta euskara jakitea ahoz eta idatziz
- Mekanizatua eta muntaketa lanetako ezagupenak eta esperientzia ere baloratuko dira

INGENIARI ELEKTRONIKOA (Erref.0.501)

Eskatuko da:

- Ingeniari tekniko edo goi mailakoa elektronika arloan
- Automatismoetan lan esperientzia: programazioa eta martxan jartzea
- PLC textu estrukturatua lan esperientzia (Beckhoff,B&R,Codesys...)
- CNC-en ezagutza
- Hizkuntzak: ingeles eta euskara jakitea ahoz eta idatziz
- Lantaldeetan jarduteko erraztasuna
- Bidaiatzeko prest egotea

METROLOGIAKO TEKNIKARIA (Erref.0.503)

Eskatuko da:

- Goi mailako formazio zikloa fabrikazio mekanikoan / Inge-
niaritza teknikoan mekanikako espezialitatearekin
- Formazio zehatza metrologian eta/edo neurketa sistemak eta kontrolean
- Software programen ezagupena eta/edo esperientzia eta neurketarako makina tridimensionalen erabilera
- Prozesuen estatistika kontrolaren ezagupena eta Sigma 6 metodologia
- Hizkuntzak: euskara eta ingelesa
- Informatika ezagupenak
- Bidaiatzeko prest egotea
- Iniziatiba eta izaera dinamikoa

ESKAINTZEN DA: Antolakuntza industrial sendoaren parte izateko eta promoziorako aukera.




Interesatuak bidali curriculumak dagokien erreferentzia adieraziz hurrengo posta helbidera
(Giza Baliabideetako departamendua. 28 P.K.- 20870 ELGOIBAR)
edo helbide elektroniko honetara: gb@danobat.com



5 eguneko Teorikako ikastaro trinkoak

ZEZEN BIDE




AUTO ESKOLA

**ORDUTEGIA:
09.30-13.00
15.30-20.30**

GIDA-BAIMENAK

**San Andres, 1 ac
Tel. 943 20 34 45
EIBAR**



TEORIKA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK

Materia arriskutsuak / C.A.P.

Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko
nazioarteko agentzia **ziurtagiriak**
lortzeko ikastaroak



T. Etxebarria, 7

Tel. 943 70 23 84

Tel. 943 70 23 78



Irribarreak
gaztetu egiten gaitu

m **bista eder**
clínica dental - hartz klinika

Inplante eta
Hortz-Estetikan
adituak

Bista Eder Hartz Klinika
Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-
943 70 00 82 / 943 20 84 75